

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000004047

Espediente-zenbakia: 2025/IDA_ERA_0024**Xedea**

Sahararen aldeko karabana solidarioa aurrera eramateko Asociación de Amigos del pueblo saharaui BESALDE alkarteari dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025. urterako Aurrekontuan, hirugarren munduko gizarte laguntzak partidaren barruan, BESALDE alkartearen dirulaguntza nominatiboa jasoten da, eta alkarteari aitatutako dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2025eko ekainaren 17an, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon dauz.

Hirugarrena: 2025eko uztailaren 2an udal Kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena emon dau.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. Artikulua, eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikuluen b), f) eta r) eta s) atalen arabera, alkarteari jagokon arren, 2024ko apirilaren 24ko 1.886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.



Baina 2025eko ekainaren 3ko 3304 Alkatetza Dekretuaren arabera, Alkateak berreskuratzen du erabaki hau hartzeko ahalmena.

Erabakia

Hori guztia dala eta, honakoa erabaki dut:

LEHENENGOA: 2025. urterako Aurrekontuan, hirugarren munduko gizarte laguntzak partidaren barruan, BESALDE alkartearen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Asociación de Amigos del pueblo saharai BESALDE alkarteagaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Proposatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2025eko uztailaren 2an

Oihane Bilbao Fernandez
Idazkaritzako AOT

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .

